

Egunero gauza bera egiten dugu: ordenagailua piztu eta Mozilla Firefox edota Internet Explorer nabigatzailea zabaldu ondoren, lehenbizi, lagunaren bloga bisitatzen dugu, ea berririk ba ote duen ikusteko. Gero, gure gustuko webgune-zerrenda begiratu! Azkenean, batetik bestera ibili ondoren, ordua pasa zaigula ohartzen gara.

Baina nola erabil dezakegu RSS jario-irakurgailua? Googleren kontua baldin badaukazu (bestela erraz sor dezakezu [helbide honetan](#)), Google Reader-en kasua ikusiko dugu...

1. Sar zaitetz helbide honetan: <http://www.google.com/reader>
2. Idatz ezazu bertan zure Google kontuko erabiltzaile-izena eta pasahitza.
3. Orain, jario edo harpidetzak gehitzeko moduan zara, webguneko ezkerreko aldean dagoen “Añadir una suscripción” delako botoian klik eginez. `{gallery}reader1{/gallery}`
4. Harpidetu zaitetz, ikaskide eta irakasleen blogetara; horrela, beti edukiko duzu haien gaurkotze guztien berri.

`{gallery}reader2{/gallery}`

5. Zerbitzu honetara gehitzen zoazen harpidetzak taldeka edo kategoriatan antolatzeko aukera duzu. Sar zaitetz orriaren beheko aldean dagoen “Administrar suscripciones” sailera, eta antolatu harpidetzak nahi bezala. Adib.: Ikaskideen blogak, Historiako edukiak, etab.

`{gallery}reader3{/gallery}`